

berria, bere biziaz eta indarrez betatzen. Bateiatuaren buruaren gainean ixuri urak erakusterat emaiten dauku nola duen Jesus-ek haren arima garbitzen bekatu ori-jinalatik eta beste bekatu guzietarik. Ordutik harat, bateiatua denak Jesus'ekin bat behar du izan debrua-

ri ezetz erraiteko, debruaren kontra ereman beharko duen gudukan azkar izaiteko. Jesus-ekin beharkodut izan eta agertu, saildutasunerateko hibe dorpean, sekulan etsitu gabe, beti aintzina joaiteko.

Donapaleu'n 1960-ko Abendoan.

LABAYEN (Antonio María): *Jokua ez da errenta*. Komeria iru ekitaldian. Kulis-ka sorta (41-42). Itxaropena argitaldaria. Zarautz'en, 1960

Euskal-antzerki txiroan ezaguna dugu Labayen jauna. Ez du, ezta gutxiagorik ere, oraingo au bere leenen lana, ezta onena ere. Izenpekoak dienez, komeria dugu, baiña erriaren erarako komeria, antzerki denak baidira berarentzat komeri.

Bijoa aurretik oar bat: idazki au ikusi ta entzuteko egiña da ta kritikariak irakurri egin du bakarrik, ta irakurpen oni lotuko natzaio, ez baidaukat bestela egiterik.

Erritar «komeriak» gora-beera, gaurko au drama da. Dramakizun garratza du, joku-galbidean ondatutako baserria ez baida komerietarako antzoki egokia. Gai jatorra, ta Euskalerrian, zoritxarrez, beti egunekoa. Baiña ortik aurrera bide gutxi egin duela esango nuke. Gaiak ba-zekarkien borroka-gríña bat; baiña inguruko maiteminduen eztikeriak ta Anabixentaren, etxeoandarearen, aiurri epelak agortu egin du drama-iturri ori. Tamala! Ezkongaiak, edo ezkongaiak, «ongi» irtetzen dira; denak ezkondata ez bada ere, esperantza onarekin beintzat. Ta ainbeste gazte ta zaar —neskazaar ta mutilzaarrak ere ba-dira-ta— poz gozotan dabiltzala, zergatik jokoaren ondorio gaiztoz gere buruak samindu? Gaiñera: maitemindu oien «maite!» ta «pa!» gozoak ezineramanak dira, zindotasungabeak. Ta ez diot au moral aldetik, ez bainaiz emen ortan ari, antzerki aldetik baiño. Ala ere, esan dezadan berriro: nik ez ditut *ikusi ta entzun* oiek guziak, *irakurri baizik*, ta au teatro-kritika baterako bide kaxkarra da.

Amaituaz. Nere iritzi apalez, maitemindu oiek kendu ta joku-gríña ta borrokak bizitu bear dira emen. Labayen jaunak ori baiño geiago ba-dezake ta egingo du noski, izan ere gaia apartekoa baidu drama bikain eta ikusgarri bat borobiltzeko. Gure antzertiak gai biziak bear ditu, egunekoak, eta oraingo au oietakoa da: zergatik ez atera duen zumo dena?

Barka bezaizkigu Labayen jaunak drama eder bat osatzera bultzatu nairik esan dizkiogun auek. Ekin eta jarrai!

*Muxika'tar Iñaki*